



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016KO IRAILAREN 23AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Jesus Peñagarikano Labaka
Miren Itziar Arratibel Imaz

Etorri diren zinegotziak:
Arkaitz Fraile Quijera

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko irailaren 23an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2016KO UZTAILAREN 21KO AKTAREN ONARPENA

2016ko uztailaren 21ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2016ko uztailaren 21ean eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- IBARRAKO JUBILATU-LOKALAREN ERABILERA PRIBATUAREN EMAKIDA PROZEDURA URGENTZIAZKOA DEKLARATZEA

Gobernu Batzordeak Ibarra Jubilatutako lokalaren lagapenaren prozesua egiteko prozedura urgentziakoa deklaratu behar du.

Ikusita, lagapena esleitu zitzaion pertsonak zerbitzua aurretiazko jakinarazpenik gabe utzi duela (uztailaren bukaeran zerbitzua amaitu zen) eta zerbitzua berriztatzeke denborarik ez dela egon; zerbitzuaren prozesua urgentziaz aurrera eraman behar da, erabiltzaileen eskaerak kontutan izanik.

Itziar Arratibel zinegotziak, Gobernu Batzordeari lantzen ari diren pleguak aurkezten dizkio.

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea 30/1992 Legearen 50. Artikuluaren arabera, Ibarra Jubilatutako lokalaren erabilera pribatuaren emakida esleitzeko urgentziakoa prozedura deklaratzeko.

BIGARRENA: Kontratazio profileen egoera honen berri eman.

HIRUGARRENA:

3.- 2016KO UZTAILAREN 21EAN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIA, MERKATARI ELKARTEARENTZAT ESLEITURIKO POLTSA BERRERABILGARRIEN INGURUKO ERABAKIA ATZERA BOTATZEA

2016ko uztailaren 21ean Gobernu Batzordeak Ibarra Merkataritako Elkarteak poltsa berrerabilgarrien sentsibilizazio kanpaina 1.350 poltsa erabilgarriren kontratua esleitzeko azterketa egin zuen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Merkatari elkarteak, ordea, adostua zuen jada beste poltsa erabilgarri mota bat nahi dutela eta Udalari esleipena martxan ez jartzea eskatzen diote.

Guztia aztertu ondore, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENGOA: Atzera botatzea Ibarra Merkataria Elkarteak poltsa berrerabilgarrien sentsibilizazio kanpaina 1.350 poltsa erabilgarriaren kontratua esleitzeko prozedura martxan ezartzeko erabakia eta beste prozedura batzuk aztertzea merkatarien beharrei aurre egiteko.

LAUGARRENA:

4.- 1679 ZENBAKIDUN ESKAERA, APARKAMENDU BATEN INGURUKOA

2016ko irailaren 9an 1679 sarrera zenbakiarekin eskaera bat aurkezten da. Eskaera honi erantzuna Alkate Dekretu bidez eman zaio eta ondorioz ez da Gobernu Batzordean aztertuko.

BOSGARRENA

5.- GALDE ERREGUAK

5.1 EAJ TALDEAK GOBERNU BATZORDEARI EGITEN DION ESKAERA: HERRIKO PINTADA ETA KARTELEN INGURUAN.

2016ko irailaren 22an, Itziar Jauregi (EAJko zinegotziak) honako eskaera aurkezten dio Ibarra Alkateari:

Ibarrari, ekonomikoki paretetako pintadak eta kartelak kentzea kostatzen zaiona jakin nahi dugu. Udaletxearen ardura dela uste dugu eta herritarrek, zikintzen dutenaren antzera, zenbat kostatzen den garbiketa hori jakin behar dutela uste dugu.

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA: Obra eta Zerbitzuetako teknikariari eta Kontuhartzailletza sailari eskatzea, Ibarra egin diren paretetako pintadak eta kartelak kentzeak suposatzen duen kostuaren balorazioa.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko zazpiak bost gutxi direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.